

## **Haurren irakur zaletasuna pizteko gurasoentzako tailerra izango da Tolosan**

Tolosa.

Bularretikmintzora kanpainaren baitan haurren irakur zaletasuna sustatzeko tailerra egingo da gurasoentzat Tolosako Errotako haur liburutegian. Izena emateko liburutegiaren ordutegia honakoa izango da: 17.00etatik 20.00etara.

Bularretikmintzora egitasmoa 0-6 urte bitarteko haurren irakur zaletasuna sustatu eta garatu ahal izateko, guraso eta hezitzaileak formatzeko eta inplikatzeko egitasmoa da. Izan ere, haurren garapen emozionalean literaturak duen garrantziaz aipatu guraso eta hezi-tzaileak kontzientziatzea da egitasmoaren helburu orokorra. Pello Añorgak gidatuko ditu saioak 15.00etatik 17.00etara, otsailaren 18, 19, 25 eta 26an. Gehienez 20 lagunentzako tailerra izango da, eta haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da. Gai zerrenda honakoa da: elkar entzuteko espazioa nola sortu, literatur egituren erabilpena erritualizatu, kontakizunak, irakurketa ozena, eta sehaska kantak, hitz jolasak, poematxoak. >m.s.s.